

FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Enpresa guztietan bezala, bezeroak eta hornitzaileak ezinbestekoak izango dira. Gure enpresak funtziona dezan eta aurrera egin dezan. Pixkanaka-pixkanaka, horiei esker, enpresa handi eta indartsu bat izango gara, jendeari kalitatezko prokutu onak eskaintzeko aukera edukiko dugu.

Lehen esan dugun bezala, hiru pertsonak osatuko dugu enpresa hau. Egoera aztertu ondoren hoberena denek lana elkarren artean egitea izango da. Hau da ordu kopuru berdina, ardua baita ekoizpenaren aurrean. Modu honetan, raginkorra izango da. Denok paper bera izango dugu enpresan, gauza bat sortzeko, konpontzeko edo bigarren bizi bat emateko orduan.

Erabiliko dugun materialari dagokionez, hainbat hornitzaileetatik hartuko dugu. Pintura, brotxak eta distira-emailea "Basmo" izeneko dendatik hartuko ditugu. Josteko makinei dagokionez, bi eduki arren, matxuratzean gehiago erosiko ditugulako, ordezeko makinak izateko, gure enpresan funtsezko aparatua baita. Haria eta horrelakoak, "Brufil" izeneko enpresan erosiko dugu. Eta, amaitzeko, egurrarekin lanean egoteko tresnak, hala nola mailuak, motozerrak, iltzeak, lapurrak etb, "Leroy Merlyn"-en erosiko ditugu.



Material hori guztia bankuko maileguarekin erosiko dugu. Pixkanaka dirua lortzen joango gara, etorkizuneko enpresarekiko gure ikuspegia oso ona baita. Zenbat eta kontsumitzaile gehiago izan, orduan eta diru gehiago izango dugu. Horrela errazagoa izango da baita merkeagoa, gure proiektua aurrera eramateko eta gastu gutxiago edukitzeko baita behar ditugun mailegua eta materialak ordaintzeko.

Lehen esan dugun bezala, oso pertsona gutxi gaude enpresan; horren ondorioz, gutako bakoitzak erantzukizun handia du; izan ere, gure lana ondo planifikatu beharko dugu, eta akats txiki batengatik, gainerako pertsonen lana atzeratu dezake, eta horrek kontsumitzaileen iritzi negatiboa izatera eraman dezake. Hala ere, hau gertatzen bada edo denboraz gaizki goazela ikusten badugu, pertsona bat hartuko dugu asteka edo egun batzuetarako lagun diezagun. Zenbat eta hobeto antolatu, orduan eta produktu hobea izango da, eta kontsumitzailea orduan eta gusturago egongo da.